



Binakako promozio txapelketako finalerdietako partiduan Beñat Garmendia beasaindarra eta Etxeberria, Ugalde eta Jaunarenaren aurka jokatu dute eta lehen mailakoan aurrez aurre Ezkurdia eta Erostarbe, eta Jaka eta Ladis Galarza izango dira

Udalak honela enpresekin duen akordioari esker Beasainen goi mailako pilota partiduak antolatuz, pilota sustatzeko ahaleginari eusten dio

Hitzordua igande honetan, martxoak 3, izango da arratsaldeko 17:00etan Antzizar kiroldegiko frontoian. Goi mailako pilotari profesionalak eta binakako promozio txapela lortzeko ahaleginean dabiltzan bikoteak ikusteko aukera izango da, tartean urtarrilean profesionaletan debuta egin zuen Beñat Garmendia beasaindarra.

Pilotazaleentzako jaialdi erakargarria antolatu da. Binakako txapelketaren barruko partiduak izango dira. Alde batetik, promozio txapelketaren barruan finalerdietako partidua jokatu da Beñat

Garmendia eta Etxeberria, Ugalde eta Jaunarenaren artean. Hauek finalera iristeko lehian izango dira. Bestalde, jaialdia borobiltzeko bigarren partidua egungo lehen mailako punta-puntako pilotariak jokatu dute, Ezkurdia (egungo lau terdiko eta binakako txapeladuna) eta Erostarbe, Jaka eta Ladis Galarzaren aurka.

Beasaingo Udalak honela herrian pilota eta kirol honekiko zaletasuna pizteko ahaleginean jarraitzen du. Murumendi pilota eskolarekin eta duela bi urte pilota enpresa nagusienekin hitzartutako akordioari esker, goi mailako pilotarien arteko partidua Beasainen jokatzeko konpromisoa lortu zuen. Ekainean San Fermin txapelketako finalerdietako partidua jokatu jarri zen martxan akordioa. Aurten errepikatuko dira ekaineko jaialdiak baina bi aldeak ez dira horretara bakarrik mugatuko eta aukera sortzen denean bien adostasunarekin jaialdi gehiago antolatzeke aukera zabalik dago, orain gertatu dena adibide.

Bertako eta eskualdeko pilotariak jokatu ikusteko aukera paregabea izango da, batez ere Beñat Garmendia beasaindarrak debuta egin zuelako profesionaletan joan den urtarilaren 5ean eta promozio mailako binakako txapelketan finalerdiak jokatzera iritsi delako. Sarrerak alde aurretik edo takilan lortu daitezke 25 eurotan. ETBk zuzenean eskainiko du jaialdia.



aspepelota.eus



MARTXOAK
3
IGANDEA

2019

BEASAIN

ANTZIZAR Kiroldesia

ORDUA
17:00

Promozioko Binakako Txapelketaren Finalerdiak

UGALDE-JAUNARENA
P. ETXEBERRIA-GARMENDIA

Eskuz Binakako Partidoa

EZKURDIA-EROSTARBE

JAKA-LADIS GALARZA

Laguntzailea: Beasaingo Udala

Salmenta: entradasfronton.com
Erreserbak: Olaya (661-25-90-09)

Informazio, harremanetarako eta kontratuertarako telefonoa 943 820 406



<http://twitter.com/ASPEpelota>